

**KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAREN TXOSTENA****EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEN LEGEA BOSGARREN ALDIZ
ALDATZEKO LEGE-AURREPROIEKTUA**

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legeak ekonomia- eta arau-kontrola arautzen du III. tituluko IV. kapituluari. Nahitaezko izaera du, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako txostenaren bidez gauzatzen da.

Aintzat hartuta bai aipatutako arau hori, bai urriaren 31ko 464/1995 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioaren alorrean barne-kontrol ekonomikoa antolatzen duenak, III. kapituluaren 3. atalean xedatutakoa, bai apirilaren 9ko 192/2013 Dekretuak, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura eta eginkizunak ezartzen dituenak, 4. artikuluan adierazitakoa, honako txosten hau egin dugu:

TXOSTENA**I. XEDEA**

Goiburuan jasotako proiektuaren xedea da bosgarren aldaketa egitea ekainaren 15eko 5/1990 Legeari, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzkoari (EHAA, 134. zk., 1990eko uztailaren 6koa). Lege hori honako lege hauek aldatu dute: 15/1998 Legeak, ekainaren 19koak (EHAA, 128. zk., 1998ko uztailaren 9koa); 6/2000 Legeak, urriaren 4koak (EHAA, 213. zk., 2000ko azaroaren 7koa); 1/2003 Legeak, martxoaren 28koak, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderen Legea aldatzeari buruzkoak, ahalordedunen eta artekariaren izendapenari dagokionez (EHAA, 72. zk., 2003ko apirilaren 10ekoa); eta, azkenik, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak (EHAA, 42. zk., 2005eko martxoaren 2koa).

Segurtasun Sailak hainbat arrazoi ematen du lege-aldaketa hori bidezkozteko, besteak beste, legearen kudeaketan pilatutako eskarmentua eta legearen azken aldaketa gauzatu zenetik hona igarotako denbora, azken aldaketa 2005ean egin baitzen, bederatzi urte duela:

- Hori horrela izanik, lehendabizi, urtarrilaren 28ko 2/2011 Lege Organikoan sartutako aldaketak nabarmendu behar ditugu, bai artikulua oinarritzoei dagozkienak bai artikulua ez

oinarrizkoei dagozkienak. Lege horrek 5/1985 Lege Organikoa aldatzen du, ekainaren 19koa, Hauteskunde Araubide Orokorri buruzkoa.

- Aurreproiektuak Espainiako Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 1eko 149/2000 epaiaren edukia ere jasotzen du Hauteskunde Batzordeen administrazio-jardunaren legezotasunaren gaineko kontrol judizialari dagokionez eta Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak hautaezintasun-karien gainean hartutako erabakiei dagokienez. Era berean, sufragio pasiborako debekua ere jasotzen du, urtarrilaren 28ko 3/2011 Lege Organikoan jasotakoa.

- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen esparruan, hauteskunde-prozesu autonomikoetan berdintasuna lortzeko ekintza positibo batzuk bultzatzen dira.

- Halaber, aldaketa tekniko batzuk sartzen dira, 5/1990 Legean pezetatan zehaztutako zenbateko guztiak eurotan zehazteko eta, bide batez, gainerako zenbatekoak euro konstanteetara eguneratzeko.

- Teknologia berrien erabilpena ere aurreikusten da, dela boto-paperak formatu elektronikoan eskuratu eta Eusko Jaurlaritzaren webgunetik jaitsi ahal izateko, dela hauteskunde-dokumentazioa bitarteko elektronikoen bidez bete ahal izateko. Aldi berean, indargabetu egiten dira legean boto elektronikoari buruz jasotako aurreikuspen guztiak.

- Azkenik, lege-aurreproiektua baliatzen da hainbat erakunderen izendapenak eguneratzeko.

II. AURREKARIAK ETA PROZEDURA

Lehen aurrekari moduan, ekainaren 15eko 5/1990 Legean, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzkoan, jasotako aldaketak aipatu behar ditugu, hain zuzen ere txosten honen aurreko atalean zehaztutakoak. Halaber, 220/2008 Dekretua ere aipatu behar dugu, abenduaren 23koa, Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan erabiltzeko kutxa, kabina, boto-txartel, kartazal eta gainerako agirien eredu ofizialak eta ezaugarriak eta material hori eskura emateko prozedura zehaztekoa (EHAA, 2. zk., 2009ko urtarrilaren 5koa). Horrez gain, azpiko maila batean, Agindu hauek aipatu behar ditugu: batetik, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2012ko abuztuaren 30eko Agindua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legean jasotako zenbatekoak eguneratzeko dena (EHAA, 172. zk., 2012ko irailaren 4koa); eta bestetik, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuak 2012ko abenduaren 17an emandako Agindua, Eusko Legebiltzarrerako 2012ko Hauteskundeetako gastuak mugatzeko ezarritako zenbatekoak zehazten dituen (EHAA, 187.

zk., 2012ko irailaren 25ekoa), horiek izan baitira izapidetu diren azken xedapen eguneratzaileak.

Lege-aurreproiektuaren aurrekarizat hartu behar ditugu ere urtarrilaren 28ko 2/2011 eta 3/2011 Lege Organikoak, baita Espainiako Konstituzio Auzitegiak Hauteskunde Batzordeen administrazio jardunaren legezkotasunari buruzko kontrol judizialaren gainean eman berri duen doktrina.

Hori guztia azalduta, Segurtasun Sailak dagokion espedientea igorri digu bulego honetara 2014ko otsailaren 4an, ekonomia- eta arau-kontrolaren gaineko txostena eman dezagun. Igorri diguten espedientea, honako agiri hauek osatzen dute:

- Segurtasuneko sailburuaren Agindua, 2013ko azaroaren 27koa, lege-aurreproiektua izapidetzeko prozedurari hasiera ematen diona.

- Segurtasuneko sailburuaren Agindua, 2013ko azaroaren 27koa, lege-aurreproiektuaren zirriborroari hasierako onespina ematen diona.

- Sailaren aldeko txosten juridikoa, 2013ko azaroaren 27koa.

- Segurtasuneko Sailaren genero-eraginari buruzko txostena, 2013ko azaroaren 27koa (sinatuta, baina sinadura digitalik gabe).

- Lege-aurreproiektuaren memoria ekonomikoa, 2013ko abenduaren 3koa.

- Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Kulturako Sailaren txostena, 2014ko urtarrilaren 16koa, lege-xedapenak euskararen erabileraren normalizazioan izango duen eraginari buruzkoa. Txostenak ekarpen esanguratsuak egiten ditu arlo horretan.

- EMAKUNDEren txostenak, 2014ko urtarrilaren 14koak.

- Sailaren azalpen-memoria, 2014ko otsailaren 4koa, espedientearen izapideetan egindako alegazioak aztertzen dituena, eta administrazio-kargen atala aurreikusten duena. Memoria hori kontrol ekonomikoko bulegoak txostena eman aurretikoa da.

Edonola ere, kontrol ekonomikoko bulegoak txostena eman ondoren Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari manuzko irizpena eskatu behar zaionez, ohartarazten dugu irizpen horren ondorioz aurreproiektuan aldaketak sartzen badira aldaketok bulego honi jakinarazi behar zaizkiola, hala ezartzen baita ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 27. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoaren kontrol ekonomikoari eta kontabilitateari buruzkoan, Euskadiko Aholku

Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2005 Legearen lehen azken xedapenak emandako idazketan.

III. TESTUAREN EDUKIAREN AZTERKETA

Helarazitako dokumentazioa aztertuta, irizten da hura bat datorrela funtsean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Barneko Ekonomiaren Kontrola eta Kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. artikuluan ezarritakoarekin, eta nahikoa da bulego honek arauaren kontrol ekonomikoko jarduna garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 25.etik 27.era bitarteko artikuluetan zehaztutako baldintzetan.

Hortaz, Kontrol Ekonomikoko Bulego honek irizpen eta ohartarazpen hauek egiten ditu:

1. Espedientearen izapideei dagokienez, kontrol-organo honen iritzia da hausnartu behar zatekeela Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko Legearen 6. artikuluan aplikagarritasuna, -16/2012 Legea, ekainaren 28koa-, eta horren arabera, enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruzko txostena jaso espedientearen (ez dago jasota), manuzko izaera baitu xedapen orokorrak izapidetzeko prozeduraren baitan. Edonola ere, Legebiltzarrera igorri beharko da lege-proiektuarekin batera.

2. Helarazitako testuak 56 artikulua ditu, bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzailea, eta bi azken xedapen. Txosten juridikoa atal ezberdinetan egituratuta dago. Atal horiek aztertuko ditugu administrazio honetarako eragin ekonomikoa duten heinean edo Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren esparruarekin zerikusirik duten gai-arloak jorratzen dituzten heinean:

a) Sufragio pasiboko eskubidea. Atal horretan sartutako aldaketei dagokienez, ekonomia- eta arau-kontrolleko izapide honetan Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen (5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa) 4.3 artikulua a) hizkian –Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko sektore publikoan- jasotakoa nabarmendu behar dugu, hain zuzen ere, honako hauek hautaezintzat jotzen dituen paragrafoa: *“Euskal sozietate publikoetan edo nagusiki horiek parte-hartzen duten sozietateetan lehendakari, zuzendari nagusi, gerente edo horien pareko beste edozein kargu betetzen dutenak, aurreko karguen pareko funtzio betearazleak dituztenak”*. .

Hasteko, adierazi behar dugu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 7. artikuluan eta hurrengoetan araututa dagoela. Beraz, nahitaez, arauketa horretan xedatutakora jo behar dugu.

Hori dela eta, bilatzen dena sozietate publikoei erreferentzi egitea bada, nahikoa da adierazpide hori erabiltzearekin, ez da beharrezkoa “enpresa” hitza gehitzea (salbu eta azalpen gehiago ematen bada hitz hori gehitzearen zergatiei buruz, sozietate publikoetatik bereizteko). Gauza bera gertatzen da “*nagusiki horiek parte-hartzen duten sozietateak*” esamoldearekin; izan ere, azken horiek sozietate publikoak dira ere bai.

Aldiz, ez zaie inolako erreferentziarik egiten Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten fundazioei ezta nortasun juridiko propioa duten partzuergoei.

Kontrol Ekonomikoko Bulego honen aburuz, lege-aurreproiektuak esparru zehatza jorratzen duen arren, ordenamendu juridiko autonomikoaren koherentzia gorde beharra dago, xedapen ezberdinen artean disfuntziorik sor ez dadin, horrek ez baitu laguntzen araua aplikatuko zaienen segurtasun juridikoa bermatzen.

b) Hauteskunde-administrazioa. Teknologia-berrikuntza batzuk sartzea aurreikusten da: batzuk, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen web-orriari buruzkoak; beste batzuk, boto-paperekin eta zenbait hauteskunde-inprimakiren formatu elektronikoari buruzkoak.

Hauteskunde-arloko arau-hausteengatik zehapenen zenbatekoa eguneratu eta eurotara bihurtzen da, baita zehapen horiek ezartzeko eskumena zein Hauteskunde Batzorderi dagokion zehaztu ere.

c) Hauteskunde-prozedura. Atal honen barruan aldaketa ugari jaso dira, guztiak Kontrol Ekonomikoko Bulego honetara helarazitako espedientean zehaztutakoak eta azaldutakoak. Besteak beste, nabarmentzekoa da, izan dezakeen eragin ekonomikoarengatik, baimendutako merkataritza-tarteetan aurreikusitako hauteskunde-gastuak hauteskunde-kanpainaren gehieneko gastuaren %25etik %20ra jaitsi izana (147. 2 artikulurako proposatzen den idazketa berriaren arabera, gehieneko muga hori eragiketa hau eginez lortzen da: 0,42 euro bider hauteskunde-barrutietako zuzenbideko biztanleria. Aurkezten diren hauteskunde bakoitzeko 202.400 euro gehi dakizkioke).

Halaber, ikusteko ezgaitasuna dutenen boto personal eta irisgarria ahalbidetzeko prozedura arautu dezala agintzen zaio Eusko Jaurlaritzari.

d) Hauteskundeetarako dirulaguntzak.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 151. artikulua aldatzen du, aulki, boto eta hauteskunde-barruti bakoitzeko hauteskunde dirulaguntzen zenbatekoa igoz Ekonomia eta Ogasun sailburuak 2012ko abuztuaren 30ean emandako Aginduaren arabera (Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legean jasotako zenbatekoei buruzkoa –EHAA, 172. zk., 2012ko irailaren 4koa). Aldatu egiten da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 151. artikulua. Gai horren gainean ohartarazpen hauek egin behar ditugu:

- Aurreikuspen eguneratzailearen azterketa egiteko, 151. artikuluan xedatutakoa lehen xedapen gehigarrian eta bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoarekin batera interpretatu behar dugu nahitaez. Horrela, bada, lehen xedapen gehigarrian jasotzen da 151. artikuluko zenbatekoak 2013ko urriaren 1eko dataz eguneratuta daudela (nahiz eta benetako eguneratze-data 2012ko abuztuaren 28koa izan zen). Hala ere, uler liteke aurreikuspen horrek hurrengo hauteskundeetarako balioa soilik izango duela, izan ere berariazko aipamena egiten zaio bigarren xedapen iragankorrari (lege honen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren ondorioetarako). Hau da, bi data horien arteko tartean, zenbatekoak eguneratzeko aukera kentzen da, eta horrek zalantzak sor ditzake neurri hori aplikagarri zaion tarteari buruz; alegia, soilik hurrengo hauteskundeetarako aplikatzekoa den (soilik horietarako) edo ez.

Gainera, bigarren xedapen iragankorrak ezartzen du Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeak egingo diren urteko ekitaldirako diru-laguntza publikoen zenbatekoak izoztutzat joko direla 2013ko abenduaren 31n. Beraz, eguneratze-tartea, nahitaez, 2013ko urriaren 1etik 2013ko abenduaren 31ko tartera mugatuko da. Horrenbestez, hauteskundeetarako diru-laguntza publikoak eguneratzeko tartea nabarmen murriztu da.

- Kendu egin da 151.3 artikulua hasierako idazketan jasotzen zen aurreikuspena, alegia soilik hauteskundeetarako diru-laguntzak eguneratzea aurriztatu zuena. Hori dela eta, garrantzi gehiago hartzen du Legearen laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoak (horren edukia ere aldatu egiten da). Dena den, xedapenaren egungo idazketa orokorregia deritzogu, eta hori dela-eta gerta liteke ulertzea eguneratzeak Legean aipatzen diren zenbateko guztiak hartzen dituela barne, eta ez soilik hauteskundeetarako diru-laguntzak.
- Baldintza berriak ezartzen dira alderdi politikoei hauteskundeetarako diru-laguntzak ordaintzeko eta diru-laguntza horien sortzapenerako. Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeari dagokio horien gainean erabakitzea. Eusko Legebiltzarreko jaurtze-organismoari, berriz, baldintza horiek betetzen direla egiaztatzea dagokio. Arlo honi

dagokionez, baldintza horietako batzuen zehaztasun eza nabarmendu behar dugu (adibidez, "hautetsia izan den karguaren egiazko egikaritzan").

- Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginak berariazko aipamenik egiten ez duen arren, diru-laguntza horiek lege horren aplikazio-eremutik kanpo geratzen direla baieztatu dezakegu. Hala jasotzen da, berariaz, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 4.b) artikuluan, diru-laguntzei buruzko lege orokorrean. Azalpen-memorian zeharka heltzen zaio kontu horri, EMAKUNDEk egindako proposamen bati emaniko ezetza baieztapen horretan oinarritzen denean. EMAKUNDEk proposatzen zuen debeku bat sar zedila aurreproiektuan sexu-bereizkeriagatik zigortutako pertsonen -erlo penalean nahiz administratiboan- hauteskundeetarako dirulagutzarik ez emateko.
- Aurretik ezarritako mugari eusten zaio. Hortaz, hauteskundeetarako diru-laguntzen zenbatekoak ezin du gainditu Herri Kontuen Euskal Epaitegiak justifikatutzat jotzen dituen hauteskunde-gastuen gehieneko muga. Gai horren gainean iruzkin batzuk egin behar ditugu:
 - 1) Hauteskundeetarako gastuen muga kalkulatzeko prozedura eguneratu da. Horretarako, beste modu batean idatzi da 147.2 artikulua. Nolanahi ere, aurreproiektuaren lehen xedapen iragankorrean %15eko murrizketa ezartzen da 2012tik aurrera egingo diren lehenengo hauteskundeetarako, Ogasuneko eskumena duen Sailak hauteskunde autonomikoak deitu eta hurrengo zazpi egunetan emango duen Aginduan jasotako zenbateko eguneratua erreferentzi hartuta.
 - 2) Lehen xedapen iragankorrean berariaz aurreikusten da Ogasuneko eskumena duen Sailak eguneraketa bat egitea, beti ere 2012tik aurrera egiten den lehenengo deialdiari lotua. Edonola ere, nahiz eta xedapen horretan ez den etorkizunerako eguneraketarik aurreikusten, ezerk ez du eragozten etorkizunean eguneraketak egitea, arestian adierazitako laugarren xedapen gehigarria aintzat hartuta.
- e) Emakumeen aldeko ekintza positiboak, Kontrol Ekonomikoko Bulego honetara helarazitako espedientean zehaztutakoak hain zuzen.
- f) Boto elektronikoaren arauketa indargabetzea (132. artikulua), izan ere, azalpen-memorian adierazten denez, arauketa hori 15 urtez indarrean egon eta gero ezin izan da urte horietan guztietan aplikatu, besteak beste, paper eta kartazal bidezko ohiko bozketa-sistemarekin bateragarri egiten duen lege-aurreikuspenarengatik. Edozein modutan,

azpimarratzekoa da aurreproiektuaren bigarren xedapen gehigarriak Eusko Jaurlaritzari gaitasuna ematen diola, autonomia erkidegoko hauteskunde batzordeak aurrez txostena emanda, Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan beharrezkotzat jotako proba pilotuak egiteko, autonomia-erkidegoko prozesuari hobekien egokitzen zaizkion teknologia berriak erabilia, teknologia horiek ezartzea posible den aztertze xedez.

IV.- EKONOMIA- ETA AURREKONTU-ERAGINA

1. Zenbatekoen eguneratzea, orokorrean. Zenbatekoen eguneratzearen baitan, bi dira aurreproiektuak darabiltzan sistemak:

- batetik, 29 j), 66, 68 bis, 3, 79, 87.7 eta 147.2 artikuluetako eguneraketak egiteko, Ekonomia eta Ogasun sailburuak 2012ko abuztuaren 30ean emandako Aginduaren (Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legean jasotako zenbatekoak eguneratzeari buruzkoa – 5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa-) bigarren idatz-zatian jasotako eguneratze-aldagaia aplikatu da. Agindu horrek %101,33 igo zituen zenbateko horiek, beti ere Legearen hasierako testuan jasotako hasierako zenbatekoekin alderatuta.

- Bestetik, 30.1, 75.2, 132 eta 145.4 artikuluetakoak, Hauteskunde Araubide Orokorraren Legeko zenbait artikuluk zehaztutako zenbateko berberak dira. Hartara, lege-ekimen hau bultzatzen duen Sailak zehazten du zenbateko horiek bere horretan mantentzeko hautua egin duela, izan ere *“bi urte eta zortzi hile besterik ez dira igaro HAOLO legearen azken eraldaketa egin zenetik, eta tarte horretan KPIk izandako gehikuntza ez da nahikoa esanguratsua izan zenbateko horiek eguneratu behar izateko”*.

Lege-ekimena bultzatzen duen Sailak adierazten duenez, neurrian eragin ekonomikoa hauteskunde-administrazioak ezar ditzakeen zehapenetara lotua dago. Eta, hori horrela izanik, aurreko deialdietan gertatutakoa ikusita, oso eragin eskasa izango duela diote, edo bestela esanda, ez duela eraginik izango.

2. Hauteskundeetarako gastuen diru-laguntzen zenbatekoa eguneratzea. 2012ko abuztuaren 30eko Aginduak dirulaguntza horien zenbatekoak eguneratu zituen aurreko eguneratzea egin osteko tarterako (2009ko urtarrilaren 8a, azken aurreko hauteskunde-deialdiari egokitu zitzaiona); eta, hain zuzen ere, horixe izan da, txosten honetako aurreko atal batean adierazi dugun moduan, Legearen 151. artikulua idazketa berria jasotakoa. Era berean, bigarren xedapen iragankorreko aurreikuspena aipatu dugu, non aipatzen den Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeei begira artikulua horretako zenbatekoen eguneratzeak 2013ko urriaren 1etik 2013ko abenduaren 31 arteko tarte baina ez

duela barne hartuko. Horren guztiaren ondorioz, Ogasun eta Finantza Sailak hurrengo hauteskundeetarako duen ordainketa-aurreikuspena (beti ere, EAeko Hauteskunde Batzordearen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren aurretiazko eskuartzea azpimarratuz) 5.215.343,38 €koa da. Horrek %2ko gehikuntza baino ez dakar aurreko hauteskundeetan eman ziren diru-laguntzen zenbatekoarekin alderatuta. Adierazi beharra dago aurreko eguneraketak (2012ko hauteskundeei zegokiena) %7,3ko gehikuntza bat ekarri zuela aurreko hauteskundeekin alderatuta (2009koak, hain zuzen).

Bestalde, Legearen 147.2 artikuluko hauteskundeetarako gastuaren mugak (horren aldaketa ere proposatzen da, %15eko murrizketarekin batera), nolabaiteko eragina izan dezake, teorian behintzat, esleitzekoak diren hauteskundeetarako diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko garaian; izan ere, horiek ezingo dute adierazitako benetako gastuen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak justifikatutzat emandako gastuen zenbatekoa gainditu (aurreproiektuaren 151.4 artikulua). Nolanahi ere, ohartarazten dugu, hautesleei zuzenean bidalitako propagandatik, kartazaletatik, boto-paperetatik nahiz hauteskunde-publizitateko beste edozein elementutatik eratorritako gastuak ez direla ezarritako mugan sartzen.

3. 36.3 artikulua aldaketak (Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak hartutako erabakiak web-orri batean argitaratzeari buruzkoa) ez dauka eragin ekonomikorik; izan ere, memoria ekonomikoak azaltzen duen moduan, erabaki horiek Eusko Legebiltzarreko web-orrian argitaratzen dira jada.

4. 38.3 artikuluan ordezkatu egiten da hauteskundeetako Sekzioak, Mahaiak eta Lokalak zabalkunde handiena duten bi egunkarietan argitaratzeko betebeharra Hauteskunde Erroldako Bulegoaren webgunean argitaratzeko betebeharragatik. Segurtasun Sailak adierazten du ez dagoela berrikuntza horren kostu ekonomikoa zehazterik, bulego hori Estatistikako Institutu Nazionalaren egituraren barruan baitago, Espainiako Ogasun Ministerioaren menpe.

5. 68.3 artikulua aldaketak bilatzen du Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan parte hartzea bultzatzeko egin ohi den kanpaina instituzionala ezabatzea, eta horren ordez, proposatutako testuan jasotzen diren zenbait alderdiri buruzko informazio-kanpaina burutzea. Edonola ere, memoria ekonomikoan jasotzen da proposatzen den kanpaina-mota hori 2012ko ekitaldian burutu zela jada, arauetan aurreikusita ez zegoen arren, eta horren kostua 98.054,80 eurokoa izan zela, %94,5eko murrizketa aurreko hauteskundeekin alderatuta.

6. 88.1 artikulua berrikuntza modura sartzen du hautagaitzen boto-paperak nahiz hauteskundeetako zenbait inprimaki formatu elektronikoan eskuratzeko aukera. Horretarako, nahitaez, Eusko Jaurlaritzaren Dekretu bat galdatzen du, aurreko hauteskunde-kanpainetan

ohikoak ziren beste gai batzuk ere arautuko dituen (boto-paper ereduak, hautestontziak...). Gaur egun, horiek guztiak abenduaren 23ko 220/2008 Dekretuak arautzen ditu.

Horren harira, memoria ekonomikoak boto-paperen inprimaketan aurreztuko liratekeen kostuen ebaluazio bat egiten du %1eko murrizketa bat oinarri hartuta, aurreikusten baita horiek izango liratekeela, gutxi gorabehera, elektronikoki eskuratuko liratekeenak. Beraz, eragin ekonomikoa urria dela esan genezake. Hala ere, ohartarazi behar dugu ez dela ebaluatu formatu elektronikoa eskuratzeko gailu informatikoaren kostua, eta Dekretu honen izapideketan kostu hori ebaluatu beharko da.

7. Itsuen boto-eskubidearen egikaritzari dagokionez, aurreproiektuaren 104.3 artikulua aurreikusten du Eusko Jaurlaritzak araudi bidez garatuko duela manu hori, eta, hortaz, araudi hori izapidetzean aztertuko da neurriaren eragin ekonomikoa. Hala eta guztiz ere, memoria ekonomikoan jasotzen da 2012ko hauteskundeetan neurri hori aplikatu zela jada, eta haren kostua 2.130,80 eurokoa izan zela.

8. 132.bis artikulua (lehen 132. Octies artikulua) *ex-novo* arautzen du aldi baterako atzerrian dauden egoiliarren posta bidezko botoa izapidetzeko prestatu eta banatu behar diren hauteskunde-inprimakiak eta hauteskunde-dokumentazioa.

Era berean, 132.ter artikulua berriak, atzerrian bizi diren egoiliar absenteen botoa arautzen du. Kasu honetan, egoera horretan daudenak barne-postaz bozkatu ahal izango dute bizi diren atzerriko herrian eta Kotsuletxera igorri, edo zuzenean kotsuletxeko bulegoetan bertaratzuz.

2012ko ekitaldian egindako hauteskundeetan, bi aurreikuspen horien kostua 9.414,68 eurokoa eta 44.009,41 eurokoa izan zen, hurrenez hurren.

9. Bozketa elektronikoaren prozedura indargabetzeak ez dauka, berez, eragin ekonomikorik; izan ere, aurreikuspen hori Legean jaso zenetik hona, ez da inoiz praktikan jarri. Segurtasun Sailak adierazten duenez, aurreikuspen hori Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan Legean jaso zenean haren kostuaren ebaluazioa 14.424.291 eurokoa izan zen.

Aldi berean, bigarren xedapen gehigarriak Eusko Jaurlaritzari gaitasuna ematen dio Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan beharrezkotzat jotako proba pilotuak egiteko, autonomia-erkidegoko prozesuari hobekien egokitzen zaizkion teknologia berriak erabilia, teknologia horiek ezartzea posible den aztertzeko xedez. Memoria ekonomikoak 60.000 eta 150.000 euro bitarteko aurreikuspena egiten du bozketa elektronikoko sistema horiekin egiten diren frogak edo erakustaldiak finantzatzeko.

10. Azkenik, lehen azken xedapenak aurreikusten du Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez ezarriko dituela irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren baldintzak Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak garatu bitartean, Ezintasuna duten pertsonen aukera-berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun orokorrari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Estatuko Legearen Bosgarren Azken Xedapenean aurreikusitakoaren arabera. Eperik finkatzen ez duen arren, gure iritziz abenduaren 2ko 51/2003 Legeko bosgarren xedapen gehigarrian ezarritako epeak hartu beharko ditugu kontuan. Beraz, horren edukia Dekretu hori izapidetzen denean zehaztuko da, eta orduan egingo da hartuko diren neurriei buruzko ebaluazio ekonomikoa. Edozein modutan, adierazi behar da memoria ekonomikoak etorkizunean arautu beharko diren zenbait arlo zehazten dituela (lokalak, kartelak, zeinu-mintzairaren interpreteak, telefonoz harrera emateko zerbitzuak, garraioa...). Adierazten du baita, neurri horietako batzuk aurreko hauteskundeetan indarrean jarri direla jada.

V. ONDORIOAK

Azaldutako guztia da aurreproiektuari buruz esateko duguna. Beraz, txosten hau ematen dugu Segurtasun Saila izapidetzen ari den espedientera elkartzeko eta Sail horrek aurreproiektuaren izapideekin aurrera jarrai dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 20a

Ontzat emana

Jon Iñaki Usategi
EKONOMIA- ETA ARAU-KONTROLA

Javier Losa Ziganda
KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOKO ZUZENDARIA